

OIARTZUNGO

XXIX.

PROSA ETA POESIA

LEHIAKETA

2016

ANTOLATZAILEA:

**OIARTZUNGO UDALA
EUSKARA BATZORDEA**

LEHIAKETAREN **GINARRIAK**

1. 8-18 urte bitarteko oiartzuar guztiek parte har dezakete. Oiartzunen jaioak edota ikasturte hasieratik Oiartzunen erroldatuak edo Oiartzungo zentroetako ikasleak direnak onartuko dira.
2. Lan guztiek argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dute.
3. Pertsona bakoitzak lan bakarra aurkeztu dezake bere mailari dagokion lehiaketa mota bakoitzean (LHn lanak taldeka aurkeztu ahal izango dira). Taldeka aurkezten direnen kasuan, saria taldearentzat izango da eta ez banakakoentzat.
4. Ordenagailuz idatzita bidaliko dira idazlanak maila guztietan, A4 neurrian, bi espaziotako tarteaz eta 2 kopia lan bakoitzeko, LH 3 eta LH4 mailetan salbu. Hauetan idazlanak eskuz idatzita bakarrik onartuko dira .
Lanen lehen orrialdean IZENGOITIA azalduko da.
5. Bi kopiak kartazal handi eta itxi batean sartu beharko dira, eta azalean honako datu hauek jarri beharko dira:
LAN MOTA: PROSA ALA POESIA
IKASMAILA eta ADINA
IZENGOITIA
Barruan, beste kartazal txikiago batean, norbere datu pertsonalak jarri beharko dira, azalean izengoitia mantenduz.
IZENGOITIA
IZENA ETA 2 ABIZENAK
IKASMAILA eta ADINA
IKASTETXEA
HELBIDEA
TELEFONOA
6. Mailaz mailako berezitasunak

LH3 eta LH4:

- **Prosa atalean soilik** lehiatzen da.
- Idazlanak **eskuz idatzita soilik** onartzen dira. Ez dira onartuko ordenadorez edota makinaz idatzitakoak 2 maila hauetan.
- Ikastetxe barruan, **gela bakoitzeko batez beste 5 lan onenak** aukeratuko dira. Kopuruarekin era malguan jokatu da, Udaleko Euskara batzordearen oniritzia jasotzen bada.

Beste maila guztietan:

- Prosa eta poesia atalean lehiatzen da.
- Idazlanak ordenagailuz idatzita soilik onartzen dira.

- **Poesia sailean**, L.H. 5. eta 6. mailakoek 24 lerro, DBH 1. eta 2. mailakoek 32 lerro eta D.B.H. 3-4 eta D.B.H.O. mailakoek 40 lerro idatzi beharko dituzte.
- **Prosa sailean**, gehienez 3 folio idatzi ahal izango dira.
- Ikastetxe barruan, **gela bakoitzeko batz beste 3 lan onenak** aukeratuko dira. Kopuruarekin era malguan jokatu da, Udaleko Euskara batzordearen oniritzia jasotzen bada.

7. Idazlanetan jorratu beharreko gaia librea izango da maila guztietan, bai poesia sailean eta baita prosa sailean ere.
8. Lanak Oiartzungo Udaleko Euskara Zerbitzura bidaliko dira, azaldu den eran. Ikastetxe bakoitzak maila bakoitzari dagozkion idazlanak mailaka sailkatuta entregatuko ditu Euskara Zerbitzuan.
9. Lanak aurkezteko epea, 2016ko azaroaren 3an, osteguna, eguerdiko 12:00etan bukatuko da.
10. Sariak honela banatuko dira:
 - Lehen Hezkuntzako 3.eko eta 4.eko mailatan, prosa sailean soilik burutuko da lehiaketa, eta sail horretan banatuko dira sariak.
 - Beste mailatan, lehiaketa eta sari-banaketa bikoitza izango da, hots, sari bat prosa sailean eta beste sari bat poesian.

Lehen Hezkuntzako 3. maila (L.H. 3)

50 € ko 2 sari (liburu edo ikasmaterialetan)

Lehen Hezkuntzako 4. maila (L.H. 4)

50 € ko 2 sari (liburu edo ikasmaterialetan)

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila (L.H. 5 eta L.H. 6)

60 € ko 2 sari (liburu edo ikasmaterialetan)

Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak (D.B.H. 1 eta D.B.H. 2)

80 € ko 2 sari (liburu edo ikasmaterialetan)

D.B.H. 3-4 (14-16 urte bitartekoak)

100 € ko 2 sari dirutan

D.B.H.O.- Batxilergoa (16-18 urte bitartekoak)

120 € ko 2 sari dirutan

11. Lan sarituen zabalpena egiteko, bide ezberdinak erabiltzeko aukerak aztertuko dira, liburuxka formatua, digitala... unean uneko baliabideen baitan.